



Euskal Herria ezagutuz

BARGOTA (NAFARROA)

Ura ardo bilakatu zenekoa

Aztia, ardoa, kateak eta zortzi puntadun izarra, ez da uraren arrastorik ageri Bargetako armarrarian, baina jakin badakigu ura izan dela herri honen ardatza, urak ezarri baitzituen udalerrriaren mugak Barga herri bilakatu zenean. Torres del Ríotik iritsi gara Bargetara, neguan egin dugu txangoa baina urteko edozein sasoitan bisitatu daiteke aztiaren herria. Pablo Antoñanak literaturara ekarri zuen Joarreko Errepublikan gara eta ez gaude bakarrik.

| PATXI LARRION |

Argazkiak: Cornava-CC By SA

UDALETXEKO PLAZAN utzi dugu autoa, herriak badu zer bisitatu, eraikinik ezagunena jauregi barroko bat da, Ganuzatarren Linternako etxea, baina ura dugu helburu, ibilbidea herritik bertatik hasiko dugu Goraño bidea hartu eta Mariñanas erreka erretenera jaitziko gara. Bargetako Udalak berriki seinaleztatu ditu Arbantako ubidearen hamalau kilometroak, Goraño herri hustua Ebro ibaiarekin lotzen dutenak.

Barga Vianako auzo bat zen Arbantako sistema hidraulikoa eraikitzen hasi zenean. XVI. mendean bukaeran hasi eta XVII. men-

dearen hasieran amaitu ziren eraikitze lanak, ekuazioa garbia zen: ura nola eraman ipar euritsu (1.000 mm) eta malkarretik hego lehor

(500 mm), oparo eta zelaira. Iparre-
ra, Goraño joko dugu. Mariñanas erreka erretenera aldea lonbardiaren makalen zerrendak lan hidraulikoaren bidea salatuko digu ibilbide osoan.

**XVII. mendean
hasieran amaitu ziren
sistema hidraulikoaren
eraikitze lanak.
Ekuazioa garbia zen:
ura nola eraman ipar
euritsu eta malkarretik
hego lehor oparora**

Lau mende iraun duen sistema

Goraño herri hustuan topatuko dugu lehenbiziko egitura, uhate bat. Ura desbideratzeko lana egin, ubidea hondeatu behar izan zuten Bargetakoek, baina ez ziren bi horiek sistema hidraulikoaren egitura bakarrak, beherago presagailu bat topatuko dugu, horrek sorturiko urmaela 5.000 metro kubo bil-

Urrutia
nekazalturismoa

Santa Marina, 9 · Osma (Araba)
☎ 945 063 167 / 627 082 799
www.agroturismourrutia.com

Azpea
Jatetxea-Restaurante

ARDO EKOLOGIKOAK
Lumbier (Nafarroa)
☎ 948 880 433
www.bodegasazpea.com

Aztiak sustaturiko lana

ZUGARRAMURDIKO herritarrekin batera 1610ean Logroñon epaitu zuten Joanes, baina Vianako Endregoto sorgina ez bezala aztia libre atera zen prozesu hartatik. Joanes aipatzen duten agiri gutxi ezagutzen ditugu, alta, Bargarotan eta inguruko herrietan anitz dira ahoz transmititu diren istorioak. Bargarotako Joanes hila zen Arbantako ubidea martxan jarri zenerako, baina eraikitze lanak aztia bizi zelarik egin ziren. Nekromantea izan al zen Arbantako ureztatze sistema diseinatu zuena? Barkatuko al didate lizentzia literarioa urmael bat betetzeko adina izerdi bota zuten orduko jorنالariak! Bargarotakoek ez dute aztia ahaztu, aurten ere uztaillaren erdirako Sorgintza Astea antolatu dute. Bi ekitaldi



BARGOTAKO UDALA

nabarmendu ohi dira, Joanesen bizitza gogoratzen duen antzez-lana eta sorgintza azoka. Diote-

nez azokak ez du paperik, eta ez da edaberik falta Nafarroako Bargarotan.

tzera iristen zen, eta presagainak bazuen ur emaria erregulatzeko sistema bat.

Lau mende igaro dira sistema hidrauliko hau martxan jarri zenetik eta berriki arte erabili izan da, azkeneko ur enkantea 1967an egin zen. Arbantako ubidean ingeniariak lana bezain garrantzitsua dugu ura erabiltzeko ordenantza. Hasieran txanda sistema bat hobetsi zuten, eta XIX. mendearen erditik aurrera ura enkantean jartzen zen. Menturaz independentziak zerikusi izan zuen arau aldaketa honetan, izan ere, 1818an Bargarotak Vianako auzoa izateari utzi zion.

Ingeniaritza lana bezain garrantzitsua dugu ura erabiltzeko ordenantza.

Hasieran txanda sistema bat hobetsi zuten, eta XIX. mendearen erditik ura enkantean jartzen zen

Ardoa xede

Ura ardo bilakatzea zuten helburu, mahastien aldi begetatiboan martxoan amaitzen da, mahastiak Goraño-

tik ekarritako urarekin ureztatzen ziren eta martxoko ura zen garestien. Arbantak gara, Errioxako ardo ekologiko on baten sorburuan, eremu zelaian ur-tanga bat nabarmen zuten da, nekazariak ura bertan zuten eskura, ez zuten herriko iturritik soberazko zamarik garraiatu behar, alferrikako lanik ez nekazariarentzat, horren lekuko dugu ere arestian ubidetik hurbil ikusi dugun dolarea, pasa den udan antzeman zuten, ezponda baten gaineko harria probesten zuten mahatsa ardantzean bertan mama bihurtzeko, ahalik eta arinen bueltatu nahian herrigunera. Itzultzeko tenorea

**Jatetxea
Taberna**

**Janari
tradizionalean
espezializatua**

☎ 943 429 875
Fermin Calbetón, 3
20003 Donostia

**IBILALDIAK
GUREKIN
ANTOLATU**

AUTOBUSAK
Aizpurua

www.autocares-aizpurua.es · info@autocares-aizpurua.es
20170 USURBIL · 943 363 290

ERDIKO KAIERA • IHESI: BARGOTA



Ezkerrean, Bargetako plaza. Eskuinean, XVII. mendeko sistema hidraulikoaren bitartez ureztatutako zelaia.

heldu zaigu, baina aurretik azpiko latsagian pausatu gara, uda amets iturritik edan dugu.

Autoa utzi dugun tokitik Nuestra

Señora del Poyo ikus daiteke. Beste baterako utziko dugu ermita ondoko zelaigunea bisitatzea. Lehenengo karlistadan bertan egiten zen preso-

en trukea karlista eta liberalen artean. Horiek Joarreko Errepublikan horren ohikoak diren istorio karliberalak dituzu. ■

Juantxo

TABERNA



Ogitarteko eta pintxo bero eta hotzetan espezializatua

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405

MANU

Automekanika

Dieselean berezitua
IAT aurreko errebisioa



Ubarburu Plaza 13, behea
27. poligonoa - Martutene
manuflanda@gmail.com

20014 DONOSTIA
☎ 943 46 47 19

ITSAS MENDI

Karabanak eta autokarabanak



- ▶ Europako marka garrantzitsuenak : **KNAUS, BENIMAR, HOBBY, BAVARIA, PILOTE.**
- ▶ Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua.

E-posta: itsasmendi@itsasmendi.com / www.itsasmendi.com
Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)
Tel. 943 59 32 90 - Faxa: 943 59 41 73